

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Proiektua onestea eta hasierako onespena ematea tertziario sailkapena duten lursailletako eraikinetan eta OR-2 ordenantzaren aplikazio-eremuan bateragarri diren erabilerak arautzeko eta Gasteizko HAPOn aldaketa xeheari, banku eta bulegoen bateragarritasun-baldintzak aldatzeko

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko irailaren 6an egindako ohiko bilkuran:

1. Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketaren proiektua onestea, hain zuzen ere, hirugarren sektorearentzat kalifikatutako lur-zatietan eraikitako eraikinetan eta OR-2aren aplikazio-eremuan erabilera bateragarriak arautzen dituen, banku eta bulegoen erabilera-bateragarritasunari buruzko baldintzak aldatzeko.

2. Hasierako onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedepen-aldaketa xeheari, hirugarren sektorearentzat kalifikatutako lur-zatietan eraikitako eraikinetan eta OR-2aren aplikazio-eremuan erabilera bateragarriak arautzen dituen, banku eta bulegoen erabilera-bateragarritasunari buruzko baldintzak aldatzeko.

3. Aldaketaren inguruko dokumentazioa jendaurrean jartzea eta horren berri ematea ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, edozein entitate edo interesdunek dokumentazio hori aztertu eta egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan, hilabeteko epean.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 9an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE